



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

San Prudentzio eguneko erromeria

Zirkulazioa arautzeko bandoa

San Prudentzio eguneko erromeria dela eta, jende ugari hurbildu ohi da Armentia zelaietara, eta, horrenbestez, ibilgailu eta oinezkoen zirkulazioa arautu beharra dago, jai egun hori normaltasun osoz igaro dadin.

1. Trafiko murrizketak:

- Apirilaren 27ko —larumbata— 14:00etatik apirilaren 28ko —igandea— 22:00etara, gutxi gorabehera, itxi egingo dira ibilgailuentzat Armentia herrirako, San Prudentzio hiribiderako eta Uleta auzorako sarbideak. Honako hauek bakarrik izango dute igarotzerik: mugatutako alderdikoak diren ibilgailuek (egiaztatu egin beharko dute hala dela, udaltzainek eskatuz gero), antolakuntzako ibilgailuek eta zerbitzu publikoek.
- Leku hauetan itxiko zaio bidea trafikoari: Armentia herriko sarbide guztietan, San Prudentzio hiribidean, Lasarteko atea eta Malizaeza kalearen arteko bidegurutzean eta Maite Zuñiga kaletik Uleta gainerako sarbidean.
- Trafiko murrizketa horiek gorabehera autoz hurbildu nahi dutenek Mendizorrotzeko eta Mendizabaleko aparkalekuak erabili beharko dituzte.

2. Garraio publikoa:

- Armentia autobus zerbitzu bereziaren linea San Prudentzioren monumentuaren ondoko geltokiraino iritsiko da —Jose María Cagigal kalea, 4—.
- Hilaren 27ko 14:00etatik aurrera, eta apirilaren 28an egun osoan, ez da zerbitzurik izango L4 Lakua-Mariturri lineako geltoki hauetan: Jose María Cagigal 5, José María Cagigal 4 (bakarrik zerbitzu berezien irteerak egingo dira), San Prudentzio hiribidea 58, Armentiabidea 20 eta Armentia basilika. Horien ordezkaria jarriko da Armentian (Renault eta Ford auto saltokien aurrean).
- Taxiei Jose M^a Cagigal kalera sartzeko utzikoa zaie, San Prudentzio ibilbidetik Jacinto Quincoces kalera bitartean.
- Hiriaren erdialdean izango diren ekitaldiak direla eta, zenbait unetan garraio publikoan ere izango dira aldatetako Prado kalearen eta Andre Maria Zuriaren plazaren inguruan.

Nolanahi ere, neurri horiek aldatzerik izango dute udaltzainek, egokitzen diren egoerak kontuan izanik; horrenbestez, udaltzainen aginduak bizkor betetzeko eskatzen diegu herritar guztiei, haien lana errazteko eta jai eguna onik igaro dadin.

Azkenik, denok ere jai eta elkartasun giroan aritzea espero dugu, gasteiztarrok eta arabarrok hain maite eta gogoko dugun jaiegun hori albait ongien ospa dezagun.

Vitoria Gasteizen, 2019ko apirilaren 16an

Alkatea, Gorka Urtaran Agirre



Herritarren Segurtasunaren Saila
Udaltzaingoa

Agirrelanda kalea, 8.
01013 - 945 161111